

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

# Euskal kasuan izandako **bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen** argazkiak, **herriz herri**

## **Lemoa**, 1960-2010

(Bigarren edizioa)

**2016ko azaroa**


EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

---

# Euskal kasuan izandako **bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen** argazkiak, **herriz herri**

---

## **Lemoa**, 1960-2010

Bigarren edizioa


**2016ko azaroa**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

# Aurkibidea

Aurkezpena. 6

Bizitzeko eskubidearen **urraketak**.

ETAm-k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 9

Erabilitako iturri eta zerrendak. 15

# Aurkezpena

2015eko irailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jendaurrean aurkeztu zituen "Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri (1960-2010)" izeneko dokumentuak. Guztira, 130 liburuxka dira, beste horrenbeste udalerriri buruzkoak. Ekitaldia egin zen Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan, Iñigo Urkullu buru zela, eta, han, liburuxka hauek banatu zitzaizkien alkateei.

*Erretratu* bakoitzak 1960 eta 2010 bitartean herri bakoitzean gertatu diren indarkeriazko heriotzen inguruan dagoen informazioa ematen du; betiere euskal kasuarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen heriotzei buruzkoa. Helburua da memoriari buruzko udal-politika sustatzeko informazioa ematea, eta biktimengana eta haien senitartekoengana hurbiltzea. Egia esan, berehalakoan nabaritu zen dokumentu horiek udalen esku utzi izanaren eragina. Izan ere, 2014arekin alderatuta, laukoiztu egin zen 2015eko azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zuten udalen kopurua.

Lehen edizio haren aurkezpenean argi adierazi zenez, bildutako kasuetatik gehienetan, dagoen informazioa bat dator eta nahikoa da. Dena den, kasu batzuei buruz, batez ere hirurogeiko hamarkadan, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkada oso hasita zegoen arte izandakoetan, ez dago nahikoa informaziorik edo bertsio kontraesankorrak eta datu nahasgarriak agertzen dira; horrenbestez, oraindik ezin da azken ondorioa atera. Alde horretatik, beraz, azpimarratu zen lan hori ezin zela behin betiko amaitutzat eman, eta zabalik zegoela osatuz joateko.

Aurkezpena egin zenetik, ekarpen eta kontsulta ugari egin dituzte eraginpekoek, udalek zein herritarrek. Eta ohar horiei esker, asko hobetu da hasierako dokumentua. Hala, hartutako konpromisoa garaiz bete ahal izan da, eta prest da bigarren edizioa: 2016ko azarotik, udalen esku da, eta herritarrek ere eskura dezakete Gogoraren eta Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren weguneetan.

Data horretatik aurrera eta bi webgune horietan, beste informazio-gune bat ireki da, "Aitortutako biktimak" izenburupean: informazio zehatza ematen du lege-arau baten babesean errekonozitu diren biktimei buruz. Terrorismoaren biktimei dagokienez, 1960tik aitortutako kasuak biltzen ditu, biktimei erreparazioa egiteko onartu diren legeak oinarritzat hartuta: 29/2011 Legea, 32/1999 Legea (Estatuko araudia) eta 4/2008 Legea (araudi autonomikoa). Funtzionario publikoek bizitzeko eskubidea urratu dieten biktimei dagokienez, 107/2012 Dekretuak aitortutako kasuak jaso dira, 1960tik 1978ra bitartekoak.

*Aitortutako biktima* horiez gain, badira aitortzeke dauden biktimak ere. Horietako asko datozen urteotan uztailaren 28ko 12/2016 Legea garatu zain daude: Eusko Legebiltzarrean onartu berri da, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Beste kasu batzuk, berriz, ez daude argi ikerketarik egin ez zelako, bertsio kontrajarriak daudelako, urraketak nork edo zergatik egin zituen argi ez dagoelako edo ebazpen judizialaren zain daudelako.

Puntu honetan, beraz, bi datu-baseak elkarren osagarri dira. "Aitortutako biktimak" izeneko gunean, lege baten babesean aitorpena jaso duten biktimei buruzko informazioa biltzen da. *Udal-erretratuak* ez dira biktimei errekonozimendu ofiziala emateko agiri ofizialak, informazioa ematekoak baino. Zerrenda horretan, aitortutako biktimei buruzko informazioa ematen da, batetik, eta prozedura judizial bidez edo lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez aitorpena jaso zain dauden biktimena ere bai, bestetik.

60/147 Ebazpena da nazioarteko zuzenbideak biktimei zuzendutako politikak egiteko duen bitartekorik garrantzitsuena; Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten, 2005ean. Ebazpen horren 9. artikuluan berariaz jasota dago pertsona bat biktimatzat hartuko dela, alde batera utzita kasua judizialki erabat argitu den ala ez. Horrela izan ez balitz, terrorismoaren edo bestelako indarkerien biktimak ezin izango lirateke biktimatzat hartu, baldin eta kasu horiek epaitu edo argitu gabe baleude, eta, ildo horretatik, ezin izango litzaieke erreparaziorik egin errekonozimendu-lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez.

Ez dira sartu *Udal Erretratu* hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubidearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...

Oinarri horien gainean, *Udal Erretratuak* egiteko, biktimei buruz argitaratuta dauden zerrenda guztiak aztertu dira: Barne Ministerioak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, biktimen elkarteek, komunikabideek zein egile partikularrek egindakoak. Udalerri bakoitzeko liburuxkan sartu dira hala bere lur-eremuan izan diren biktimak, nola, ekintza bera beste nonbait gertatuta ere, herri horretakoak diren edo bertan bizi diren biktimak.

Bi ataletan egituratu da edukia: lehenengoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nahikoa frogatutzat dagoen kasuak jasotzen dira, egileen eta hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuta. Bigarrenean, berriz, nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin betiko baietsitzat ezin eduki dezaketen kasuak biltzen dira.

EAEko udalek adierazitako behar batetik sortu zen lan hau; izan ere, memoria-ekitaldiak sustatzeko orduan, ez zuten nahikoa informazio udalerrian izandako biktimei buruz. Dokumentu honek tresna erabilgarria izan nahi du udal-arduradunek memoriari buruzko proiektuak egiteko orduan herriko informazio guztia eskura izan dezaten.

Azken batean, iraganean nozitutako terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean memoria kritikoa bultzatzeko betebehar instituzionalari erantzutea da kontua. Biktimen oroimena bizirik iraunarazteko memoria, eta orainaldian eta etorkizunean giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa helarazten duena, bereziki, bizitzeko eskubidearen eta pertsonen duintasunaren errespetuarekiko konpromisoa.

Garrantzitsua da argi izatea memoriaren politika publiko baten helburua ez dela *omenaldiak* egitea. Bi helburu nagusi ditu, eta zentzu sozial eta politiko sakonagoa dute helburu horiek: biktimei dagokienez, gertatutakoa gogoraraztea, jasan zuten bidegabekeria aitortzea, eta haienganako elkartasuna adieraztea beste behin ere, eta, gizarteari dagokionez, berriz, gogoeta kritikoa sustatzea iraganean gertatutakotik berriz ere gertatu behar ez duenaz hausnartzeko, edo, aitzitik, gertatutako horretatik azpimarratu behar denaz hausnartzeko.

Liburuxka hauetako bakoitza berriz ere gertatu behar ez duenaren eta ahaztu behar ez denaren erretratu da. Dokumentuaren izenburuan *erretratua* hitza jasotzen da, erretratuak gizakiaren irudia erakusten duelako; aurpegia, begiak eta espresioa dituelako. Erretratuak pertsona jakin bat irudikatzen du; izen, abizen, familia, lagun, istorio, amets eta proiektuak dituen pertsona jakin bat. Biktimen sufrimendu bidegabea hezurmamitzen duten aurpegien erretratua duzu dokumentu hau.

# Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

## **ETAm**-k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

# 1

# José Javier Jáuregui Bernaola

**Data:** 1978/07/08.

**Adina:** 38 urte.

**Non jaioa:** Lemoa (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, beste batzuk:** Lemoako bake-epailea. Alkohola eta tabakoa saltzeko gunea zeukan, eta, gainera, Gizarte Segurtasunaren anbulantzia baten gidaria zen, Sestaon. Kontseilari izan zen Movimienton.

**Egiletza:** ETAm.

**Lekua:** Lemoako La Herradura lokalean, hura zeukanean.

**Prozedura:** Su-arma bidezko atentatua, gertutik.

**Datu gehiago:** Hainbat mehatxu jaso zituen.

# 2

# Antonio Pérez García

**Data:** 1979/05/17.

**Adina:** 48 urte.

**Non jaioa:** Cortes de la Frontera (Malaga).

**Bizilekua:** Lemoa (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Hiru alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** La Herradura taberna zeukan, Lemoako Isuntza auzoan. Gainera, Cementos Lemonako zailtzaile-lanetan ere bazebilen.

**Egiletza:** ETAm.

**Lekua:** Bere establezimendutik hurbil dagoen aparkaleku batean, Lemoan.

**Prozedura:** Su-arma bidezko atentatua.

**Datu gehiago:** Mehatxuak eta pintadak jasan zituen, eta, hori dela eta, udalerria utzi behar izan zuen, denbora batez.

# 3

# Luis Uriarte Alzaa

**Atentatuaren data:** 1979/09/29.

**Heriotzaren eguna:** 1979/10/05.

**Adina:** 56 urte.

**Non jaioa:** Durango (Bizkaia).

**Bizilekua:** Ibarra auzoa, Bedia (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, beste batzuk:** Ugarte garajean egiten zuen lan. Bizkaiko foru-diputatua izan zen eta Bediako alkatea, 18 urtez. Alianza Popularren sortzailea izan zen, Bizkaian.

**Egiletza:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bilboko ospitale zibileko ZIUn, irailaren 29an, egunkaria irakurtzen ari zela lan egiten zuen garajearen aurrean Lemoan zauritua izan ondoren.

**Prozedura:** Su-arma bidezko atentatua.

**Datu gehiago:** Bere alabetako batek, Ana Uriarte Garayk, Foro contra la Impunidad-en parte hartzen du, 2011ko ekainean eratua, “Adiskidetze akritikoaren alde egoera gainditzeko tentazioa”ren aurka borrokatzeko.

# 4

# Joseba Olaya De la Flor

**Data:** 1981/05/14.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Madrigal de la Vera (Cáceres).

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, beste batzuk:** Guardia zibila.

**Egiletza:** ETAm.

**Lekua:** Lemoako errepidean.

**Prozedura:** Bonba bidezko atentatua, mendixka batean ezkutatuta eta urrutira aktibatuta, Peña Lemona harrobirako material leherkorra zeukan furgoneta bat babesten ari ziren Guardia Zibilaren hiru Land Rover igarotzean.

**Datu gehiago:** Atentatuan, Manuel Sánchez Barallo guardia zibila ere hil zen, eta larriki zauritu zen Anselmo Jiménez Aller agentea.

# 5

# Manuel Sánchez Borrallo

**Data:** 1981/05/14.

**Adina:** 26 urte.

**Non jaioa:** Calañas (Huelva).

**Seme-alabak:** Seme-alabarik gabe.

**Lanbidea, kargua, beste batzuk:** Guardia zibila. Ibilgailuaren gidaria.

**Egiletza:** ETAm.

**Lekua:** Lemoako errepidean.

**Prozedura:** Bonba bidezko atentatua, mendixka batean ezkutatuta eta urrutira aktibatuta, Peña Lemona harrobirako material leherkorra zeukan furgoneta bat babesten ari ziren Guardia Zibilaren hiru Land Rover igarotzean.

**Datu gehiago:** Atentatuan, José Olaya de la Flor guardia zibila ere hil zen, eta larriki zauritu zen Anselmo Jiménez Aller agentea.

# Erabilitako iturri eta zerrendak


- ABC: *ABC Especiales*, *Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas

- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.

- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.

- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkartea), www.argituz.org

- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/

- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkartea). www.avt.org

- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/

- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.

- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkartea). www.covite.org

- Egin: *Anuarios 1977-1982* eta *Anuarios 1982-1997*.

- El Correo. http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html

- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html

- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com

- Eusko Jaurlaritza. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/

- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumentazio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com

- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritza. 2014ko abendua.

- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es

- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziogunea. www.lbfundazioa.org

- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/

- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.

- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.

- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.

- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org

- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net

- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf

- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.

- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitza, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Alava, Noticias de Gipuzkoa*.

Documento informativo ofrecido a los ayuntamientos para facilitar el impulso de actuaciones memoriales y de reconocimiento a las víctimas

# Retratos **municipales** de las **vulneraciones** **del derecho a la vida** en el caso vasco

## **Lemoa**, 1960-2010

Segunda edición

**noviembre de 2016**

Secretaría General para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

PRESIDENCIA
Secretaria General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Victimas y Derechos Humanos

# Sumario

Presentación. 6

**Casos de vulneración** del derecho a la vida.

Vulneraciones del derecho a la vida causadas por ETAm. 9

Fuentes y listados contrastados. 15

# Presentación

El 4 de septiembre de 2015, la Secretaría General para la Paz y la Convivencia del Gobierno Vasco presentó públicamente los documentos titulados “Retratos municipales de las vulneraciones del derecho a la vida en el caso vasco. 1960-2010”. Un total de 130 cuadernillos correspondientes a otros tantos municipios que fueron entregados a sus alcaldes en un acto presidido por el Lehendakari Iñigo Urkullu y celebrado en la sede de Gogora, el Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos.

Cada *Retrato* ofrece en cada municipio la información disponible sobre los casos de muertes violentas producidas entre 1960 y 2010 que tienen o pudieran tener relación con el caso vasco. Su objetivo es informar para incentivar una política municipal de memoria y acercamiento a las víctimas y sus familias. El efecto de la entrega de esta documentación a los ayuntamientos se dejó notar de inmediato. El 10 de noviembre de 2015, el número de ayuntamientos que conmemoró el Día de la Memoria se cuadriplicó con respecto a 2014.

En el apartado de presentación de aquella primera edición se subrayaba explícitamente que, sobre la gran mayoría de los casos recogidos, la información disponible era coincidente y suficiente. Sin embargo, sobre algunos de los casos, especialmente en las décadas de los sesenta, setenta y hasta bien entrados los ochenta, no hay información suficiente o aparecen versiones contrapuestas y datos confusos sobre los que todavía no es posible una conclusión última. En este sentido, se subrayaba que este trabajo no podía considerarse cerrado definitivamente, sino abierto a ser completado.

Desde su presentación han sido numerosas las aportaciones y consultas realizadas por parte de afectados, ayuntamientos o particulares. Estas observaciones han permitido mejorar el documento inicial. Se ha podido así cumplir en plazo el compromiso adquirido por el Gobierno Vasco y se ha preparado una segunda edición que, desde noviembre de 2016, ha quedado a disposición de los ayuntamientos y del público en general en la páginas web de Gogora y de la Secretaría General para la Paz y la Convivencia.

Desde esta misma fecha y en estas dos mismas páginas web se ha abierto otro espacio informativo titulado “Víctimas Reconocidas” que ofrece información específica sobre los casos de víctimas que han sido reconocidas al amparo de una norma legal. En cuanto a las víctimas del terrorismo, recoge los casos reconocidos desde 1960, con base en las leyes aprobadas para su reparación: Ley 29/2011, Ley 32/1999 (normativa estatal), y Ley 4/2008 (normativa autonómica). Con respecto a las víctimas de vulneraciones del derecho a la vida causadas por funcionarios públicos, quedan incluidos los casos reconocidos por el Decreto 107/2012, desde 1960 hasta 1978.

Además de *víctimas reconocidas*, también existen víctimas pendientes de reconocimiento. Muchas de ellas, a la espera de que, en los próximos años, se desarrolle la Ley 12/2016, de 28 de julio, recién aprobada por el Parlamento Vasco para el reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos. Otras se encuentran en situación de indefinición porque no hubo investigación, porque existen versiones contrapuestas, porque no es clara su autoría o motivación o porque están pendientes de resolución judicial.

Es en este punto en el que estas dos bases de datos resultan complementarias. El espacio “Víctimas Reconocidas” ofrece información sobre las víctimas reconocidas al amparo de una ley. Los *Retratos municipales* no son un documento de reconocimiento oficial a víctimas, sino un documento informativo. En su listado se informa tanto sobre las víctimas reconocidas como sobre aquellas que puedan estar a la espera

de que esta condición sea, en su caso, confirmada, mediante procedimiento judicial o mediante un acto administrativo amparado por una ley.

El instrumento más importante del derecho internacional para las políticas de víctimas es la Resolución 60/147, aprobada por la Asamblea General de las Naciones Unidas en 2005. Su artículo 9 señala expresamente que una persona será considerada víctima con independencia de que se haya producido un pleno esclarecimiento judicial del caso. De no ser así, las víctimas del terrorismo o de otras tipologías de violencia, cuyos casos no se hubieran juzgado o esclarecido, no habrían podido ser consideradas víctimas, ni habrían podido llegar a ser reparadas mediante un acto administrativo por una ley de reconocimiento.

No están incluidos en estos *Retratos municipales* los casos que siguiendo los mismos estándares del derecho internacional no pueden calificarse como vulneración del derecho a la vida, aunque tengan una relación indirecta con el contexto de violencia en que sucedieron. Se trata de circunstancias tales como suicidios, accidentes, muertes producidas en una acción violenta, disparos fortuitos entre cuerpos policiales…

Sobre estas bases, estos *Retratos municipales* se han elaborado contrastando todos los listados publicados sobre víctimas: Ministerio del Interior, Gobierno de Navarra, Gobierno Vasco, asociaciones de víctimas, medios de comunicación, autores particulares... En el cuadernillo de cada municipio se han incluido tanto las víctimas producidas en su término como aquellas que habiéndolo sido en otros lugares, hubieran sido naturales o residentes en esa localidad.

El contenido se ha estructurado en dos apartados: en el primero, se han incluido los casos cuya calificación como vulneración del derecho a la vida puede considerarse suficientemente confirmada, ordenados por autorías y orden cronológico. En el segundo se agrupan aquellos casos cuya calificación no puede considerarse definitivamente confirmada por causa de una insuficiente clarificación.

El trabajo responde en origen a una necesidad expresada por ayuntamientos vascos que, al pretender promover actuaciones de memoria, se encontraron con una insuficiente información sobre las víctimas provocadas en su municipio. Este documento pretende ser una herramienta útil para que los responsables municipales puedan abordar proyectos memoriales conociendo toda la información disponible sobre su localidad.

En definitiva, se trata de responder al deber institucional de impulsar una memoria crítica frente al terrorismo y la violencia padecidas en el pasado. Una memoria que mantenga vivo el recuerdo de las víctimas y que proyecte, al presente y al futuro, un compromiso definitivo con los derechos humanos y, en especial, con el respeto al derecho la vida y la dignidad de las personas.

Es importante subrayar que la finalidad de la política pública de memoria no es realizar actos de *homenaje*. Sus objetivos principales son dos y tienen un sentido político y social más profundo: en relación con las víctimas, recordar lo ocurrido reconociendo la injusticia que padecieron y renovando la expresión de solidaridad hacia ellas; y con respecto a la sociedad, promover una reflexión crítica sobre aquello del pasado que no debe repetirse o que, al contrario merece ser destacado.

Cada uno de estos cuadernillos es un retrato de lo que no debe repetirse, ni olvidarse. El título del documento incluye la palabra retrato porque un *retrato* tiene rostro humano, tiene cara, ojos y expresión. Un retrato representa a una persona concreta, con nombre, apellidos, familia, amigos, historia, sueños y proyectos. Este documento es el retrato de los rostros humanos del sufrimiento injusto de las víctimas.

# **Casos de vulneración** del derecho a la vida

## Vulneraciones del derecho a la vida causadas por **ETAm**

# 1

# José Javier Jáuregui Bernaola

**Fecha:** 08/07/1978.

**Edad:** 38 años.

**Natural de:** Lemoa (Bizkaia).

**Hijas-hijos:** Soltero.

**Profesión/cargo/otros:** Juez de paz de Lemoa. Regentaba un puesto de venta de alcohol y tabaco, La Herradura, a la vez que era conductor de una ambulancia de la Seguridad Social en Sestao. Había sido consejero local del Movimiento.

**Autoría:** ETAm.

**Lugar:** En el local La Herradura, que regentaba en Lemoa.

**Procedimiento:** Atentado con arma de fuego, a corta distancia.

**Más datos:** Había recibido diversas amenazas.

# 2

# Antonio Pérez García

**Fecha:** 17/05/1979.

**Edad:** 48 años.

**Natural de:** Cortes de la Frontera (Málaga).

**Vecino de:** Lemoa (Bizkaia).

**Hijas-hijos:** Tres hijas.

**Profesión/cargo/otros:** Regentaba el bar La Herradura, en el barrio Intzuntza de Lemoa. Trabajaba también como vigilante en Cementos Lemona.

**Autoría:** ETAm.

**Lugar:** En un aparcamiento cercano a su establecimiento, en Lemoa.

**Procedimiento:** Atentado con arma de fuego.

**Más datos:** Había sufrido amenazas y pintadas, lo que le llevó a ausentarse de la localidad un tiempo.

# 3

# Luis Uriarte Alzaa

**Fecha del atentado:** 29/09/1979.

**Fecha del fallecimiento:** 05/10/1979.

**Edad:** 56 años.

**Natural de:** Durango (Bizkaia).

**Vecino de:** Barrio Ibarra, de Bedia (Bizkaia).

**Hijas/hijos:** Tres hijos.

**Profesión/cargo/otros:** Trabajaba en el Garaje Ugarte. Fue Diputado foral de Bizkaia y también Alcalde de Bedia durante 11 años. Fundador de Alianza Popular en Bizkaia.

**Autoría:** ETAm.

**Lugar del fallecimiento:** En la UCI del hospital civil de Bilbao, tras ser herido el 29 de septiembre cuando leía el periódico en su vehículo, en la calle de la Estación, en Lemoa.

**Procedimiento:** Atentado con arma de fuego.

**Más datos:** Una de sus hijas, Ana Uriarte Garay, forma parte del Foro contra la Impunidad, constituido en junio de 2011 con el objetivo de luchar contra “la tentación de pasar página a favor de una reconciliación acrítica”.

# 4

# José
# Olaya
# De la Flor

**Fecha:** 14/05/1981.

**Edad:** 29 años.

**Natural de:** Madrigal de la Vera (Cáceres).

**Hijas/hijos:** Una hija.

**Profesión, cargo, otros:** Guardia civil.

**Autoría:** ETAm.

**Lugar:** En la carretera de Lemoa.

**Procedimiento:** Atentado con bomba, oculta en un montículo y activada a distancia, al paso de tres Land Rover de la Guardia Civil, que escoltaban una furgoneta con material explosivo para la cantera Peña Lemona.

**Más datos:** En el atentado muere también el guardia civil Manuel Sánchez Barallo, y resulta gravemente herido el agente Anselmo Jiménez Aller.

# 5

# Manuel Sánchez Borrallo

**Fecha:** 14/05/1981.

**Edad:** 26 años.

**Natural de:** Calañas (Huelva).

**Hijas/hijos:** Sin hijos.

**Profesión, cargo, otros:** Guardia civil. Conductor del vehículo.

**Autoría:** ETAm.

**Lugar:** En la carretera de Lemoa.

**Procedimiento:** Atentado con bomba, oculta en un montículo y activada a distancia, al paso de tres Land Rover de la Guardia Civil que escoltaban una furgoneta con material explosivo para la cantera Peña Lemona.

**Más datos:** En el atentado muere también el guardia civil José Olaya de la Flor, y resulta gravemente herido el agente Anselmo Jiménez Aller.

# Fuentes y listados contrastados

- ABC Especiales, *Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas

- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madrid, 2010.

- Anuarios de Egin, 1977-1982 y de 1982 a 1997 (ambos inclusive).

- Ararteko, *Atención institucional a las víctimas del terrorismo en Euskadi*, informe extraordinario al Parlamento vasco, junio de 2009.

- Arovite. Instituto de Historia Social Valentín de Foronda. UPV-EHU, www.arovite.com/bases-de-datos/

- Asociación Pro Derechos Humanos Argituz, www.argituz.org

- Asociación Víctimas del Terrorismo (AVT), www.avt.org

- Calleja, José María e Ignacio Sánchez-Cuenca, *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madrid, 2006.

- Colectivo de Víctimas del Terrorismo en el País Vasco (Covite), www.covite.org

- Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo del Gobierno Vasco, *Informe sobre víctimas del terrorismo practicado por grupos incontrolados, de extrema derecha y el GAL*, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf

- Dirección de Derechos Humanos del Gobierno Vasco, *Informe sobre Víctimas de vulneraciones de Derechos Humanos derivados de la violencia de motivación política, 2008.* www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es

- El Correo, http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html

- El País, "Las Víctimas", www.elpais.com/especial/eta/victimas.html

- Euskal Herria y la Libertad. Ocho tomos. Txalaparta Editorial, Tafalla, 1993.

- Euskal Memoria Fundazioa, Datu basea, www.euskalmemoria.com

- Fernando Buesa Blanco Fundazioa. Centro de documentación e investigación, www.fundacionfernandobuesa.com

- Fonseca, Carlos (coord.). *Informe sobre la situación procesal de los atentados perpetrados por organizaciones terroristas con resultado de muerte entre 1960 y 2014. Caso Vasco*. Por encargo de la Secretaría General para la Paz y la Convivencia. Gobierno Vasco. Diciembre 2014.

- Fundación Juan March. Archivo Linz de la Transición española. CEACS, www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Fundación Víctimas del Terrorismo, www.fundacionvt.org

- Fundación Víctimas del Terrorismo, Asesinatos de ETA en Álava, www.alava.net

- Gobierno Vasco. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioa. Dokumentazio gunea, www.lbfundazioa.org

- Libertad Digital, In Memoriam: No olvidar lo inolvidable, blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/

- Marrodán, Javier, Gonzalo Araluce, Rocío García de Leániz y María Jiménez, *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Gobierno de Navarra, Pamplona, 2013.

- Ministerio del Interior. www.interior.gob.es/

- Nuñez, Luis (coord.). *Euskal Herria y la Libertad*. Ocho tomos. Txalaparta Editorial, Tafalla, 1993.

- Periódicos: ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitza, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Alava, Noticias de Gipuzkoa.

- Pulgar Gutiérrez, Belén, *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Dykinson, Madrid, 2004.

- Vasco Press Agencia, Crónica de documentación y actualidad, nº 1.176, agosto 2004.